

BESTELAKO XEDAPENAK

SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA

2071

EBAZPENA, 2026ko apirilaren 27koa, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, 2026rako «Zibersegurtasun Industrial» laguntza programaren oinarri arautzaileak onartzea eta deialdia argitaratzea agintzen duena.

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak, Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren mendeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera industrialeko eta enpresa arloko jarduera bultzatzera bideratutako jardunbideak bideratzeko eta lehiakortasuneko bektore gisa honako hauen arteko trantsizioak Euskadiko enpresetan txertatzen laguntzeko ardura du: teknologia-digitala, energia-ingurumena eta demografia-gizartea. Horretarako, enpresen jarduera ekintzailean inbertsioa, berrikuntza, nazioartekotzea eta jarduera sustatzea bultzatzen ditu.

Alde horretatik, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak hainbat ekintza garatu ditu Euskadiko enpresa-esparruan eraldaketa digitala bultzatzeko. Ekintza horien artean, aipatzekoak dira Euskadiko eraldaketa digitala bultzatzera bideratutako laguntza-programa anitzak.

Ondorioz, Laguntza Programa honen helburu nagusia Informazioaren Gizartearen garapena bultzatzea eta haren erresilientzia indartzea da, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen zibersegurtasun maila handitzen nabarmen laguntzen duten proiektuak babestuz.

Dirulaguntzen Erregimena Arautzen duen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak (DEAL) 7.2.a) artikuluan eskatzen du Lege horrek ezartzen duen dirulaguntzen kudeaketa eta esleipena hainbat printzipioen arabera egiteko, besteak beste, publizitate-printzipioaren arabera. Era berean, DEALen 8.3 artikulua ezartzen du dirulaguntza edo diruz lagundutako programa mota bakoitzaren oinarri arautzaileak argitaratu behar direla Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Hori guztia dela eta, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2026. urterako «Zibersegurtasun industrial» laguntza-programari dagozkion oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea. Horien edukia atxikita dago ebazpen honen eranskinean.

Bigarrena.– 2026. urterako «Zibersegurtasun industrial» programari dagozkion oinarri arautzaileak onartzen dituen ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen kontra, berraztertze errekurtsoa jar daiteke SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Zuzendaritza Nagusiaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa administrazioarekiko epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honek eragina izango du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bilbao, 2026ko apirilaren 27a.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusia,
JON ANSOLEAGA UGARTE.

ERANSKINA

ZIBERSEGURTASUN INDUSTRIALEKO 2026KO LAGUNTZA PROGRAMAREN OINARRI
ARAUTZAILEAK

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak (SPRI), Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren mendeko erakunde publikoak, hainbat ekintza gauzatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) industria, lehiakortasuna, enpresa-lankidetzaz, ikerketa eta garapen teknologikoa sustatzeko.

Esparru horretan, «Zibersegurtasun Industrial» programa guztiz lerrokatuta dago jarduketa horiekin, bai eta Eusko Jaurlaritzaren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren jardura zuzentzen duen Euskadi 2030 Industria Planak ezartzen dituen sektore estrategikoekin ere. Programaren helburua Irabazi, Hazi eta Jauzi sektore estrategikoak indartzea eta garatzea da, zibersegurtasunaren eta enpresa-erresilientziaren hobekuntza sustatuz, eta arreta berezia jarritz arlo horretan erregulazio-presio handienari aurre egiten dioten sektoreetan.

Programaren helburua da zibersegurtasuneko arauzko betebeharrak betetzen direla bermatuko duten neurriak hartzea erraztea, eta, horrela, balizko zehapenak saihesten eta enpresek beren merkatuetan duten lehiakortasuna babesten laguntzea. Era berean, aurreikusitako jardueren bidez, euskal enpresen lehiakortasunaren posizionamendua indartu nahi da, beren zibersegurtasuna eta beren produktuena indartuz, merkatu eta bezero berrietarako sarbidea erraztuz, ingurune digitalarekiko konfiantza handituz, nazioarteko balio-kateetan gehiago integratuz eta ospe korporatiboa hobetuz, erregulazio-arriskuak eta balizko galera ekonomikoak murriztuz.

Era berean, programak zuzenean eragiten die Euskadi 2030 Industria Planaren «Industria Gehiago» eta «Industria Hobe» jardura-ardatzei, eta plan horretan jasotako lehentasun estrategikoetako batzuk lortzeko elementu gaitzaile gisa jarduten du. Besteak beste, hauek nabarmentzen dira: industria-enpresa txiki eta ertainen tamaina eta erresilientzia handitzea, zibersegurtasunaren arloan duten posizioa hobetuz gero eta interkonektatuago dagoen Europako ingurune digital batean, industriarako talentua erakarriz eta garatuz, eta adimen artifiziala eta zibersegurtasuna moduko teknologiak erabiltzea bultzatuz, betiere, modu erabakigarrian lagunduz eraldaketa digitalari eta euskal enpresa-sarearen lehiakortasuna sendotzeari.

Horrez gain, Industria Plana – Euskadi 2030ek bere helburuen operazionalizazioa ezartzen du proiektu eraldatzaileen bidez. Planean bertan zehaztutako lehentasun estrategikoak babesteko sortu dira horiek. Proiektu horiek bereizten dira, batetik, intentsitate teknologiko handia dutelako eta, bestetik, Irabazi, Hazi eta Jauzi sektore estrategikoak indartzen eta garatzen laguntzen dutelako. Alderdi horiek guztiz bat datoz programa honen izaerarekin.

Ildo horretan, SPRIk zenbait ekintza proposatzen ditu erronka horiei erantzuteko, eta «Zibersegurtasun industrial» programa da horietako bat. Programa horrek Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen babesa, zibersegurtasuna eta erresilientzia operatiboa areagotzeko helburuari erantzuten dio bereziki. Gainera, 2025-2028 aldirako Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2025eko urtarrilaren 24ko Aginduaren bidez, erakundearen Dirulaguntzen Plan Estrategikoan dago jasota, eta erakundearen Gardentasun Atarian argitaratu da. Zuzenean laguntzen du helburua betetzen: «Enpresen Zibersegurtasuna babestea» zibersegurtasuna erabiltzeko ibilbidearen arabera.

1. artikulua.– Xedea.

Programaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen eta haien produktuen babesa, zibersegurtasuna eta erresilientzia operatiboa nabarmen areagotzen duten proiektuei laguntzea, zibersegurtasuna kudeatzeko sistemen hobekuntza sustatuz eta haien lerrokatzea eta ziurtapena sustatuz nazioartean onartutako esparru eta estandarren arabera.

2. artikulua.– Laguntzen izaera.

1.– Laguntza horiek behar bezala jasotako laguntzen ondoz ondoko esleipenaren arabera emango dira. Ondorioz, banaka eta modu ordenatuan ebatziko dira, oinarri hauetan zehaztutako dokumentazio guztiarekin eskaera osatu den unea kontuan hartuta.

2.– Programa hau aplikatzearen ondorioz emandako laguntzek 2023ko abenduaren 13an Batzordeak onartutako (EB) 2831/2023 Erregelamenduak (Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa) jasotako garrantzi txikiagoko edo de minimis laguntza izaera dute («EBren 2831/2023 Erregelamendua»).

3.– Programa honen bidez ematen diren laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira.

4.– Programa honen esparruan emandako dirulaguntzak ez daude zuzenean lotuta esportatutako kopuruei, banaketa-sare bat ezartzeari eta ustiatzeari, edo esportatzeko jarduerari lotutako beste gastu korrante batzuei.

3. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Dirulaguntzak emateko Programa honen helburura bideratutako 2026ko baliabide ekonomikoak 11.000.000 eurokoak dira, eta SPRI aurrekontuetan horretarako ezarri diren aurrekontu-zuzkiduretatik etorriko dira, 2026rako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sartuta.

2.– Laguntzak ordenan esleituko dira, espedientea osatuta dagoen unearen arabera, eta ebazpen bidez, laguntzak ukatuko dira, horiek programarako gehieneko zuzkidura gainditzen badute.

3.– Programarako funtsak agortzen badira, programari amaiera emango zaio, eta horren berri emango du SPRIren zuzendari nagusiak sozietatearen web orrian (www.spri.eus) eta EHAAAn argitaratuko den ebazpen baten bidez.

4.– Behin aurrekontu-kreditua bukatuta, ezingo da beste dirulaguntzarik eman eta, hori dela eta, aurkeztu diren, baina ebazteke dauden eskaerak ezetsi egingo dira.

5.– Jasotako eskaeren arabera eta helburu bererako aurrekontua badago, aurrekontuaren gehieneko zenbatekoa 5.000.000 euro gehiagoz handitzeko aukera aurreikusten da (hau da, 16.000.000 eurora arte). Gehieneko zenbatekoa handitzeko ebazpena EHAAan argitaratu beharko da. Edonola ere, argitaratze horrek ezin du ekarri eskabide berriak aurkezteko epea irekitzea edo ebazteko epe berri baten hasiera.

4. artikulua.– Erakunde onuradunak eta izaera hori lortzeko eskakizunak.

1.– Programa honetan jasotako laguntzak eskuratu ahal izango dituzte industria-enpresek (pertsona fisikoak edo juridikoak) edo industria-produktuarekin edo -prozesuarekin lotutako zerbitzu-enpresek, baldin eta 6. artikuluan deskribatutako jarduera hautagarriak gauzatzeko proiektuak aurkezten badituzte.

2831/2023 Erregelamenduaren 1.1 artikulua arabera, kanpoan geratzen dira arrantzako eta akuikulturako produktuen lehen mailako ekoizpenean eta nekazaritzako produktuen lehen mailako ekoizpenean aritzen diren enpresak.

Hori guztia, baldin eta:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera-zentro bat badute. Hain zuzen ere, aurkeztutako proiektuak zentro horretan izan beharko du inpaktua eta bertan egin beharko da jarduera hautagarria.

b) Euskadiko Ekonomia Jardueren Gaineko Zergan alta emanda badaude.

2.– Ezingo dituzte deialdi honetan aurkezten diren dirulaguntzak jaso:

a) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareari (ZTBES) edo antzeko izaera duten I+G sareei atxikita daudenek.

b) Sektore publikoren batekoak diren edo sektore publikoaren parte diren erakundeek, aplikagarriak diren sailkapen instituzionalaren araudien arabera.

c) DEALen 13. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean daudenek.

Zehazki, eskatzaileek zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzako betebeharrak eta dirulaguntzen itzulketen betebeharrak betetzen dituztela aintzat hartuko da Ekonomia eta Ogasun Kontseilariak 2023ko otsailaren 13an emandako aginduak ezarritako kasuetan. Hala, dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketan eguneratuta dagoela aintzat hartuko da zorrak zatikatuta edo atzeratuta eta bermatuta daudenean edo itzultzeko dagokion ebazpenaren aurkaratzea bertan behera uztea adostu bada.

d) Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpoko delatzen edo barne-merkatuarekin bateraezina dela erabaki ondoren, laguntzak errekonferentziarako agindu baten menpe daudenek.

e) LGTBIfobia egin, bultzatu edo sustatu dutenek, bihurketa-terapiak sustatu edo egitea barne, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eragingarrirako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen arabera.

f) Europako Segurtasun Estrategian sartzen ez diren erabilera militarreko armak edo teknologiak ekoizten, merkaturatzen eta finantzatzen dituztenek.

3.– Dirulaguntzen onuradun izateko, aurreko apartatuetan adierazitako baldintzak dirulaguntzaren eskaera aurkezten denetik ematen den dirulaguntzaren azken ordainketa egin arte bete beharko dira.

4.– Aurreko paragrafoetan aurreikusitako alderdiak modu honetan egiaztatuko dira:

a) SPRik ofizioz egiaztatuko du honako eskakizunak betetzen direla:

– Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera-zentro bat dutela, zeinetan proiektuak eragina izango duen.

– Euskadiko Ekonomia Jardueren Gaineko Zergan alta emanda daudela.

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela.

Dena den, eskatzaileak aurka egin dezake. Hala bada, kasu bakoitzean eskumena duen organoaren administrazio-ziurtagiri positiboak eman beharko ditu.

b) Eskaerak prozesatzeko aplikazioan erantsitako adierazpenaren bidez egiaztatuko dira gainerako baldintzak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan eskakizunak betetz, baita DEALen 13.9 artikuluan aurreikusitako eskakizunak ere. Erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatutako baldintzen egiazkotasuna ikuskapen bidez edo dokumentazioa eskatuz egiaztatu ahal izango da, hala badagokio.

5. artikulua.– Jarduera hautagarriak.

Jarduera hautagarritzat joko dira Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen eta haien produktuen babesa, zibersegurtasuna eta erresilientzia operatiboa areagotzera bideratutako proiektuak, haien zibersegurtasuna kudeatzeko sistemen hobekuntza sustatuz, eta haien lerrokatzea eta ziurtapena sustatuz nazioartean onartutako esparru eta estandarren arabera.

Hala, proiektuak zibersegurtasuneko araudi edo estandarretara egokitzeko eta ziurtatzeko ohiko prozesuekin lotutako faseren batean kokatu beharko dira. Ez da nahitaezkoa, aukeragarria den jarduketa bererako, fase guztiak hartzea, ezta fase bererako deskribatu diren jarduketa guztiak burutzea ere. «Ibilbidearen» barruan jasotako faseak eta horietako bakoitzari lotutako proiektuen tipologiak, aldi berean hautagarriak laguntzeko modukoak izango direnak, jarraian zehazten dira:

I.– Zibersegurtasuna enpresan:

a) Hasierako diagnostikoa:

- Kontrolen eta politiken ebaluazioa.
- Enpresaren edo produktuaren zibersegurtasun-auditoriak.

– Langileen gaikuntza- eta kontzientziazio-maila neurtzea. Eusko Jaurlaritzak enpresen esku jarri du «Langileen gaitasun digitalen diagnostikoa zibersegurtasunean», esteka: (<https://digitalanaiz.euskadi.eus/hasiera/>). Metodologia hori edo langileen gaitasun- eta kontzientziazio-maila neurtzeko beste edozein erabil daiteke.

- Zibersegurtasunaren arloan enpresak gaur egun duen egoera zehazteko beste proiektu batzuk.

b) Estrategia eta Ekintza Planak:

- PDS – Segurtasuneko Gida Planak.
- Zibersegurtasuna hobetzeko ekintza-planak garatzea.
- Enpresek zibersegurtasunaren arloan duten estrategia zehazteari eta garatzeari lotutako beste proiektu batzuk.

c) Konponbideak eta neurriak ezartzea:

- Identifikatzea:
 - Aktiboen inbentarioa sortzea eta mantentzea.
 - Politikak eta prozedurak zehaztea.
 - Mehatxu eta arriskuen ebaluazioa.
 - Araudia betetzearen ebaluazioa.
 - Enpresek zibersegurtasunaren arloan duten teknologia- eta antolaketa-testuingurua ezagutzeko beste proiektu batzuk.
- Gobernatzea:
 - Negozioaren arrisku eta helburuekin bat datorren zibersegurtasun-politika globala definitzea eta onartzea.
 - Krisiak kudeatzeko prozedura bat egitea eta ezartzea.
 - Araudia betetzeko estrategia eta haren jarraipena egiteko tresnak (GRC).
 - Enpresetan zibersegurtasuna bermatzeko beste proiektu batzuk.

- Babestea:
 - OT urruneko sarbideak segurtatzea, IT sarbideak kontrolatzea eta identitateak kudeatzea.
 - Zibersegurtasunean kontzientziatzeko eta gaitzeko ekimenak.
 - Sare eta arkitektura seguruen segmentazioa.
 - Babeserako tresna eta teknologiak ezartzea (suebakiak, IDS/IPS, EDR, XDR, MDM, ZTNA, VPN, SASE, WAF, CASB eta baliokideak).
 - Ahuleziak kudeatzea eta sartzeko testak egitea.
 - Datuak zifratzea (PQC, kuantu eta baliokideak barne) eta informazioa segurtatzea.
 - Enpresen babes-maila handitzen laguntzen duten beste proiektu batzuk.
 - Detektatzea:
 - Kudeatutako segurtasun-zerbitzuak (MSSP).
 - SOC zerbitzua kontratatzea.
 - Segurtasun-gailuen monitorizazioa.
 - Enpresetan detekzio-gaitasunak txertatzeko beste proiektu batzuk.
 - Erantzutea:
 - Gorabehereri Erantzuteko Planak (ICP) eta Negozioaren Jarraipenerako Planak (BCP).
 - Zibersegurtasuneko gertaeren simulazioak.
 - Berreskuratzea:
 - Disaster Recovery planak.
 - Segurtasun-kopiak eta BRS (Business Recovery Systems).
 - Disaster Recovery planekin erlazionatutako DPZen erreplikazioa.
 - Enpresetan berreskuratze-gaitasunak txertatzeko beste proiektu batzuk.
 - d) Ebaluazioa, Auditoretza eta Ziurtapena:
 - Zibersegurtasunera bideratutako arau-esparruei buruzko ebaluazio- eta adostasun-prozesua.
 - Zibersegurtasunera bideratutako arau-esparruei buruzko auditoretza-prozesuak.
 - Zibersegurtasunera bideratutako arau-esparruei buruzko ziurtapen-prozesuak.
 - e) Etengabeko hobekuntza:
 - Berrikuste-, berritze- eta egokitze-prozesuak zibersegurtasunera bideratutako arau-esparruetan.
- II.– Produktuaren Zibersegurtasuna:
- a) Produktuaren bizitza-ziklo osoan zibersegurtasuna ziurtatuko duen antolaketa- eta prozesu-esparru bat ezartzea.
 - b) Produktuen diseinu eta garapen seguruan laguntzeko aholkularitza-proiektuak. Diseinuaren bidez segurtasun-kontrolak integratzea, mehatxuen analisia, kodearen berrikuspena eta arkitektura seguruaren baliozkotzea barne.

c) Iragaitzazko eta atsedeneko datuen zifratzea (PQC, kuantu eta baliokideak barne) inplementatzeko proiektuak, elkarrekiko autentifikazioa eta gakoien kudeaketa segurua.

d) Ahulezien kudeaketa aktibora bideratutako irtenbideak ezartzea.

e) Produktuaren zibersegurtasunaren ebaluazioa eta ziurtapena: produktuei buruzko adostasun-probak.

f) Produktuaren zibersegurtasunarekin lotutako beste proiektu batzuk.

Proiektuak hasi eta gehienez 12 hilabeteko epean gauzatu beharko dira.

– Ez dira ekintza hautagarritzat hartuko artikulu honetan deskribatutako produktuak edo zerbitzuak, erakunde onuradunaren produktuen eta zerbitzuen katalogoan sartzen badira. Salbuespen gisa, muga hori ez da aplikatuko enpresako edo produktuko araudia betetzearekin edo ziurtatzea-rekin lotutako jardun hautagarrietan.

– Inola ere ez da ekintza hautagarritzat hartuko Europar Batasuneko kide diren beste herrialde batzuetara edo hirugarren herrialdeetara esportatzea; eta, ondorioz, Programa honen testuinguruan onartutako dirulaguntzek ezingo dute zuzenean lotuta egon esportatutako kantitateekin, banaketa-sare bat martxan jarri eta ustiatzearekin, edo esportazio-jarduerarekin lotutako beste ohiko gastu batzuekin.

– Programa honen barruan emandako dirulaguntzek ezingo dute baldintzatu inportatutako produktuen ordez bertako produktuak erabiltzea.

6. artikulua.– Gastu hautagarriak eta aplikatzeko baldintzak.

1.– Gastu edo inbertsio hautagarritzat hartuko dira 5. artikuluan deskribatutako aholkularitza, ingeniariaritza, hardware eta software-lizentzien gastuak, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Proiektua gauzatzeko ezarritako epean zehar eta 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera sortutakoak edo fakturatutakoak, eta epe hori ezin izango da 12 hilabetetik gorakoa izan hasten denetik kontatzen hasita.

b) Kanpoko enpresa adituek eginak. Kanpoko enpresa aditutzat hartuko da dirulaguntzaren xede den proiektuaren esparruan jarduera ekonomikoa erregularitasunez gauzatzen duen erakunde pribatu oro, edozein forma juridiko dutela ere. Beste kasu batzuk ere onartzen diren arren, enpresak baldintza hori betetzen duela uste izango da baldin eta «Euskadiko Zibersegurtasunaren Liburu Zurian» aipatzen bada, hemen argitaratuta: <https://www.spri.eus/laguntzak/euskadiko-zibersegurtasunaren-ekosistema/>

2.– SAAS (Software as a Service) formatuko kudeaketa-aplikazioak ezartzea aurreikusten duten proiektuei dagokienez, gastu hautagarritzat hartu ahal izango dira era horretako zerbitzuei egozteko moduko gastuak ere, gehienez 12 hilabetean, baldin eta artikulu honetan deskribatutako baldintzak betetzen badituzte eta 5. artikuluan deskribatutako proiektu moten barruan badaude.

3.– Fakturan aplikatutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga ez da gastu hautagarria izango.

4.– Honako hauek inola ere dira gastu eta inbertsio hautagarriak izango: eskatzaileak berak egindako lanak, kanpoko enpresa adituak egindako joan-etorrien gastuak, material didaktikoak egitea eta aretoak alokatzea, dietak eta antzekoak. Gastu horiek fakturen kontzeptutik bereizita aurkeztu beharko dira.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira bulegoko lanpostuak eskuratu, berritu edo mantentzeko gastuak, eta –adibide gisa eta ez mugatzaile gisa– erabilera orokorreko sistema eragileak, xede orokorreko ekipo informatikoak eta ekipo eratorriak, bulegotika- edo produktibitate-lizentziak eta, oro har, bulegoko langileen lan arrunterako erabiltzen den edozein ekipamendu edo software barne.

5.– Kanpoko enpresa adituek ezin izango dute sektore publikoren bateko kide izan edo horietako kide izan, aplikatu beharreko sailkapen instituzionaleko arauen arabera.

6.– Gastu eta inbertsio hautagarriak baloratzeko, irizpide hauek izango dira kontuan:

a) Lotura zuzena izango dute programa honen helburu den jarduerarekin.

b) Deskontuak eta antzekoak izanez gero, gastua gutxitu egingo da.

c) Gastu hautagarriaren balioespena kutxako irizpidearen araberakoa izango da.

d) DEALen 30.1 artikuluan aurreikusten den moduan, hautagarriak izan daitezkeen gastuak eskuratzeko kostua ezingo da inolaz ere merkatuaren balioa baino altuagoa izan. Alde horretatik, antzeko proiektuen batez besteko gastuekin alderatuta, proiektuaren gastu-aurrekontua handiegia dela irizten bada, gastu hautagarrien oinarria murriztuko da, gastu egokitzat eta proportziozkotzat jotzen den zenbatekoaren arabera.

e) DEALen 31.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradun batek azpikontratatzan edo kontratatzen duela ulertuko da hirugarren batekin adosten duenean dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo zati batean gauzatzea. Kontzeptu horretatik kanpo geratuko da onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz gauzatzeko egin beharreko gastuen kontratazioa. Hori horrela, azpikontratazioa edo hirugarrenen kontratazioa diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100era iritsi ahal izango da, eta diruz lagundutako jardueren azpikontrataziorako edo hirugarren kontrataziorako aplikagarri izango dira aipatutako artikuluetan jasotako gainerako aurreikuspenak.

f) DEALen 30.3 artikuluan aurreikusitakoa betez, gastu hautagarriaren zenbatekoak gainditu egiten baditu sektore publikoko kontratazioaren arloan indarrean dagoen araudiak kontratu txikirako ezarritako kopuruak, eta betiere hirugarrenen kontratazioaren bat baldin badago, onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu lana egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, bere ezaugarriak bereziak izateagatik, merkatuan ez badago lana egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko behar beste erakunde, edo gastua dirulaguntza eman baino lehen egin bada. Dirulaguntzaren justifikazioan edo, hala badagokio, eskaeran aurkeztutako eskaintzen artean aukeratzeko, efizientziaren eta ekonomiaren irizpideak hartuko dira kontuan, eta abantailarik handienak dituen proposamen ekonomikoa aukeratzen ez bada, berariaz justifikatu beharko da memoria batean.

7. artikulua.– Laguntzen modalitatea eta zenbatekoa.

Laguntzak dirulaguntza gisa egituratuko dira.

Programa honen esparruan, enpresaren gehieneko dirulaguntza 100.000 eurokoa izango da, jarduera hautagarri/proiektu bat edo gehiago egiteko.

Aholkularitza- eta ingeniari-gastuak, gutxienez, proiektuko oinarri hautagarriaren % 20koak izango dira gutxienez. Salbuespen gisa, betebehari hori ez zaie aplikatuko ECSOren (European Cyber Security Organization) «Cybersecurity Made in Europe» zigilua duten enpresek garatu eta emandako produktu edo soluzioak ezartzeko proiektuei.

Dirulaguntza kalkulatzeko, kontuan hartuko dira definizio hauek:

– «Proiektuaren gehieneko aurrekontu onartua» honako kontzeptu hauen batura izango da:

– aholkularitzako edo ingeniariartzako gastuetan onartutako aurrekontua, gehi

– hardwarean edo software-lizentzietan onartutako aurrekontua.

– «Oinarri hautagarria» aurrez aipatutako irizpidea aplikatu ondoren onartutako gehieneko aurrekontua izango da; hau da, aholkularitza eta ingeniariartzako gastuek oinarri hautagarriaren % 20 izan behar dute, gutxienez.

Oinarri hautagarriko gastu hautagarri bakoitzari % 60ko laguntza aplikatuko zaio.

8. artikulua.– Laguntzak metatzea eta mugak.

1.– Programa honetan aurrez ikusitako laguntzak ezingo dira pilatu gastu hautagarri beretarako SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak emandako beste laguntza batzuekin.

2.– Aurreko apartatuen mugaketari kalterik egin gabe, programa honetan jasotako laguntzak beste laguntza bateragarri batzuekin edo Europako Erkidegoko beste finantzabide batzuekin eskura daitezke, betiere gastu hautagarrietarako gehieneko laguntzaren intentsitatea errespetatzen badute.

3.– Laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izango erakunde onuradunak garatzeko asmoa duen jardueraren kostua baino handiagoa, soilik laguntza hori aintzat hartuta edo edozein administraziok edo horien sektore publikoek xede bererako emandako beste laguntza batzuk edota bestelako sarrera mota batzuk, publiko nahiz pribatuak, gehituta. Baldin eta beste laguntza publiko, edo pribatu batzuk eta programa honen bidez emandakoa metaturik lortzen den zenbatekoak gainditu egiten badu kostu hori, murriztu egingo da programa honetan araututako laguntzaren zenbatekoa jardueraren gehiegizko finantzaketa saihesteko behar den neurrian.

4.– Programa hau aplikatuz emandako laguntzek garrantzi gutxiagoko laguntzen edo de minimis izaera dute.

5.– Erakunde onuradun batek jaso dezakeen de minimis guztien kopurua ezingo da 300.000 eurotik gorakoa izan azken hiru urteetan.

6.– De minimis laguntzak ez dira Estatuko laguntzekin metatuko, gastu hautagarri bereberri dagokienez, ezta arriskuaren finantzaketa-neurri berdinentzako Estatuko beste edozein dirulaguntzari ere, baldin eta metatze horrek gaindituko balu laguntzaren intentsitatea edo dagokion dirulaguntzaren kopururik altuena. Gehieneko kopuru hori kasu bakoitzaren ezaugarri zehatzen arabera dago ezarrita, kategorien araberrako salbuespen-araudi baten edo Batzordeak harturiko erabaki baten bitartez.

7.– Aurrez aipatutako muga horiek edo programa honek zehazten dituen beste batzuk gaindituz gero, soberako kantitatea murriztu egingo da programaren arabera emandako zenbatekotik.

8.– De minimis laguntzak emanda daudela ulertuko dira, enpresari laguntza jasotzeko eskubide legala ematen zaion unetik hasita.

9. artikulua.– Laguntza-eskaera.

1.– Eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta oinarri hauen ondoriozko gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoak erabiliz egingo dira SPRIren webguneaz baliaturik.

2.– Aurreikusitako laguntzak jaso ahal izateko baldintzak betetzen dituzten erakundeek SPRI-ren web-orrian prestatutako aplikazio informatikoaren bidez bete beharko dute laguntza-eskaera. Aplikazio hori ondoz ondoko pantailaz osatuta dago, eta eskatzaileek oinarri hauen arabera eskatu beharreko informazioa bistaratuko dute.

3.– Dirulaguntzaren eskaera hori izenpe elektronikoa aurreratuaren bidez (ziurtagiri elektronikoa ezagutu batekin) sinatu beharko du erakundea ordezkatzeko nahikoa ahalorde duen pertsona batek.

4.– Erakunde onuradunaren eta bere legezko ordezkariaren identifikazio-datuak jaso beharko dira laguntza-eskaeran.

5.– SPRIk ofizioz egiaztatuko du ea zerga-betebehar guztiak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzen diren, baita enpresa Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda dagoen ere. Nolanahi ere, laguntza-eskaerak aukera ematen du eskatzaileak ofiziozko kontsultaren aurka egiteko, eta, kasu horretan, dagokion egiaztapenak aurkeztu beharko ditu.

6.– Laguntza-eskaerarekin batera, agiri eta informazio hauek aurkeztu behar dira:

a) Oinarri Arautzaile hauen Eranskinean ageri den normalizatutako ereduaren edukiaren arabera egindako erantzukizunpeko adierazpena.

b) Alderdi hauei buruzko informazioa:

– Azken hiru urtetan jasotako de minimis laguntzen zerrenda. Bertan adierazi beharko da laguntza hori noiz eman zen, zer erakundek eman zuten, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

– Proiektu hori bera gauzatzeko beste erakunde publiko zein pribatu batzuei eskatutako edo haiek emandako dirulaguntzak, bertan adieraziz laguntza hori noiz eskatu zen, eta, hala badagokio, zein organismok eman zuten, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

c) 30.000 eurotik gorako laguntza-eskaeren eta enpresen kasuan, Erantzukizunpeko Adierazpena edo, hala badagokio, ROACen izena emandako auditorearen ziurtagiria edo adostutako prozeduren txostena, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.3 bis artikulua, ordaintzeko epe legalei buruzkoa, betetzeko.

d) Legezko ordezkariaren notario-ahalordea, salbu eta laguntza-eskaera eskatzailearen ordezkariak sinatu badu, pertsona juridikoaren ordezkariaren indarreko ziurtagiriaren bidez, ziurtapen-agintaritza ezagun batek emanda.

e) Identifikazio Fiskaleko Txartela, salbu eta laguntza-eskaera eskatzailearen ordezkariak sinatu badu. Ziurtagiriak indarrean egon behar du, ziurtapen-agintaritza batek emandakoa izango da eta aukera eman beharko du IFZ zenbakiari eta eskatzailearen izen sozialari buruzko datua egiaztatu ahal izateko. Langile autonomo baten kasuan, nahikoa izango da laguntza-eskaera aitortutako ziurtapen-agintaritza batek igorritako pertsona fisikoaren ziurtagiri bidez sinatzea. Ziurtagiriak indarrean egon beharko du eta, eskatzailearen izen-abizenak eta NAN zenbakiari buruzko datua egiaztatzea ahalbidetu beharko du.

f) Proiektuaren eskaintza teknikoa eta ekonomikoa (gehienez 25 orrialde), eta puntu hauei buruzko informazio zehatza eduki behar du:

– Enpresaren jarduera eta egungo egoera (teknologiari dagokionez).

– Detektatutako arazoa/premia. Proiektuaren helburuak.

– Egin beharreko ingeniari- edo aholkulari-lanen, eta produktuaren/zerbitzuaren nahiz proiektuan sortuko diren dokumentuen azalpena.

– Dirulaguntza jasoko duen proiektuaren bidez egingo diren hardware eta software inbertsioen azalpena. Argitu proiektuarekin duen lotura eta zergatik den beharrezkoa.

– Ezarriko den zibersegurtasuneko soluzioaren azterketa zehatza. Proiektuan erabiliko diren teknologiak.

– Aurrekontu banakatua, bere baitan hartuz aholkulari- edo ingeniari-kostuak, sistemaren lizentziak eta mantentze-lanak, eta hardwarea (hala badagokio).

– Egin behar den zeregin bakoitzarentzat balioetsitako ordu kopurua (arduraldiak).

– Proiektua gauzatzeko egutegia.

g) Hainbat hornitzailearen eskaintzak, DEALen 30.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

h) Aurkeztutako proiektuak enpresa hornitzaileak garatutako produktuak barne hartzen baditu eta enpresa horrek «Cybersecurity Made in Europe» zigilua badu, zigilu hori indarrean dagoela egiaztatzen duen dokumentua.

7.– Jakinarazpenen abisuak bidaltzeko garaian, posta elektronikoko helbide gisa programaren eskatzaile/onuradun gisa jasota dagoena bakarrik onartuko da.

8.– Eskatzaileek bermatuta izango dute beren hizkuntza –euskarara edo gaztelania– ahoz nahiz idatziz erabiltzeko eskubidea, Programa honen ondorioz SPRIrekin izango dituzten harreman guztietan.

10. artikulua.– Laguntza-eskaerak aurkezteko epea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da laguntza-eskaerak aurkezteko epea, eta 2026ko azaroaren 23an amaituko da. Dena den, eskatzaileei zuzendutako arreta teknikoa 2026ko azaroaren 23ko 15:00etan (Espainiako penintsulako ordua) amaituko da.

11. artikulua.– Esleipenaren prozedura.

1.– Organo kudeatzaileak kudeatuko ditu laguntza-eskaerak, espedientea osorik dagoen unetik aurrera.

2.– Ebazpena SPRIko Zuzendaritza Nagusiaren titularrak egingo du, ondoz ondoko esleipenaren erregimenean, eta eskatzaileari jakinaraziko zaio gehienez ere 10 egun balioduneko epean, igortzen denetik zenbatzen hasita. Baiespen- edo ezespren-ebazpen hori SPRIko zuzendari nagusiak emango du, eta eskatzaileari jakinaraziko zaio; halaber, haren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahalko da SPRIren zuzendari nagusiaren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe eta moduan.

3.– Ebazteko epea. Ebazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da agiri guztiak aurkezten diren egunetik kontatzen hasita. Aipatutako epean ebazpenik ematen ez bada, ezetsi egin dela ulertuko da.

4.– Ebazpenen berri ematean jakinaraziko da zenbateko dirulaguntza emango den, zein baldintzatan ematen den, EBren 2831/2023 Erregelamenduaren arabera izatea eta jarduera hori garatzeko beharrezkoa den beste edozein baldintza ere adieraziko da.

5.– Ebazpena SPRIren webgunean eta EHAAren argitaratuko da, denek izan dezaten emandako laguntzen berri.

12. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa.

1.– Ekintza hautagarria amaitu ostean, eta 90 egun naturaleko epean, erakunde onuradunek proiektua burutu izana justifikatu beharko dute, SPRIren webguneko likidazio-eskaeraren inprimakiak betez.

2.– Likidazio-eskaera hori sinadura elektronikoaren bidez sinatu beharko du erakundea ordezkatzeko ahalorde nahikoa duen pertsona batek.

3.– Erakunde eskatzailearen eta bere legezko ordezkariaren identifikazio-datuak jaso beharko dira likidazio-eskaeran.

4.– Likidazio-eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Gastu eta inbertsio hautagarrien fakturak, aholkularitzako edo ingeniariatzako, hardwareko eta software-lizentzien kostuen banakatzearekin.

b) Finantza-erakundeak ordaindu izanaren egiaztagiriak.

c) Jarduerak, dirulaguntzarekin ez ezik, funts propioekin edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuekin ere finantzatu badira, diruz lagundutako jardueretan bideratutako funts horien zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa egiaztatu beharko dira.

d) Kanpoko enpresa adituak proiektua gauzatu ondoren egindako lanak egiaztatzen dituen memoria teknikoa (gehienez 25 orrialdekoa); informazio hau jasoko du:

– Konpondutako arazoa/premia. Lortutako helburuak. Aurkeztutako proiektuaren desbideratzeak, baleude, eta haiek justifikatzea.

– Eginiko ingeniariatza- edota aholkularitza-lanak eta proiektuan sortutako dokumentuak.

– Aholkularitza-zerbitzuaren barruan egindako lanen defentsa zehatza, lan horiek egiteko behar den denbora adieraziz (aholkularitza/teknikoaren izena, data, zeregina, emandako denbora eta proiektua guztiz gauzatu dela frogatzeko garrantzitsua izan daitekeen beste edozein datu).

– Dirulaguntzaren xede den proiektuari lotutako hardware eta softwareko inbertsioen deskribapena eta ebidentziak (pantaila-argazkiak, argazkiak eta proiektua erabat gauzatu dela frogatzeko garrantzitsua den beste edozein datu). Proiektuarekin duen lotura eta beharra agerian uztea.

– Fakturatutako zenbatekoak banakatuta, orobat adieraziz aholkularitza- eta ingeniariatza-kostuak, sistemaren lizentziak, mantentze-lanak eta hardwarea (hala badagokie).

e) Finantza-erakundearen egiaztagiriaren fotokopia, kontu korrontearen titulartasuna onuradunaren izenean dagoela frogatzeko eta zenbakia zein den zehazteko (IBAN).

SPRIk ofizioz egiaztatuko du likidazio-eskatzaileak baldintza hauek betetzen dituela:

– Jarduera-zentroa duela Euskal Autonomia Erkidegoan.

– Euskadiko Ekonomia Jardueren Gaineko Zergan, alta emanda dagoela.

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela.

Dena den, eskatzaileak aurka egin dezake. Hala bada, kasu bakoitzean eskumena duen organoaren administrazio-ziurtagiri positiboak eman beharko ditu.

5.– Ebazpena Zuzendaritza Nagusiko titularrak emango du eta haren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahalko da SPRIren zuzendari nagusiaren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe eta moduan.

13. artikulua.– Laguntza- eta likidazio-eskaerak zuzentzea.

1.– Laguntza- edota likidazio-eskaerak ez badaude behar bezala beteta puntu guztietan edo ez bada eskatutako dokumentazio osoa ekartzen, SPRIk 10 egun balioduneko epea emango dio erakundearen legezko ordezkariari akatsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak helarazteko.

2.– Epe horretan erakunde onuradunak akatsa zuzendu ez badu, laguntza-eskaeren kasuan, eskaera ukatuko da, helburu horretarako agindutako ebazpen baten bidez.

14. artikulua.– Laguntza ordaintzea.

1.– Dirulaguntzak SPRIk ordainduko ditu, onuradunari ordainketa bakarra eginda, likidazio-eskaera eta 12. artikuluan eskatzen den justifikaziorako dokumentazioa modu egokian aurkeztu ondoren.

2.– Baldin eta gastu hautagarria dirulaguntza emateko ebazpenean onartutako aurrekontuan adierazitakoa baino txikiagoa bada, dirulaguntza proportzionalki egokituko zaio gastuari, 7. artikuluan ezarritako irizpideen arabera.

15. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Oinarri hauen babesean ematen diren dirulaguntzen onuradunek DEALen 14. eta 42. artikuluetan ezarritako betebeharrak izango dituzte, eta, bereziki eta mugarik jartzeko asmorik gabe, honako hauek:

- a) Dirulaguntza emateko oinarri izan duen jarduera egitea edo egoera horretan egotea.
- b) SPRIren aurrean egiaztatzea eskakizunak eta baldintzak betetzen direla, bai eta dirulaguntzak jasotzeko edo gozatu ahal izateko beharrezkoa den jarduera ere egiten dela.
- c) Emandako laguntza onartzea. Horrekin lotuta, dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena jaso den dataren ondoren hamar egun balioduneko epean, erakunde onuradunak ez badio SPRIren aurrean laguntzari espresuki uko egiten, onartuta geratu dela ulertuko da.
- d) Emandako laguntza jarduera-plana garatzera bideratzea.
- e) SPRIk beharrezkotzat jotako dokumentazio osagarria eska dezakeela eta SPRIk izendatutako langileek, bere edozein instalaziotan, beharrezkotzat eta egokituz jotako egiaztapen guztiak egin ditzaketela onartzea. Horien guztien helburua izango da emandako laguntzaren xede den proiektua gauzatu dela eta eskatutako baldintzak bete direla egiaztatzea.
- f) Faktura osoak gordetzea eta, SPRIren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren esku jartzea bost urtez, gastu hautagarriak gauzatzen direnetik aurrera.
- g) Hala badagokio, SPRIk egin beharreko egiaztapen-jarduketak baimentzea edo Eusko Jaur-laritzako Kontrol Ekonomikorako Bulegoak, Euskadiko Kontu Publikoen Auzitegiak edo Estatuko zein erkidegoko beste edozein kontrol-organo eskudunek jasotako dirulaguntzen gainean egin beharreko beste edozein egiaztapen eta kontrol finantzario baimentzea, aurretik aipatutako zeregin horiek egiteko beharrezkoa den edozein informazio emanez.
- h) SPRIri jakinaraztea laguntzak edo dirulaguntzak edota beste edozein diru-sarrera edo baliabide eskatu edo jaso dutela hemen araututako dirulaguntzen xede berbererako beste Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik.

Jakin eta berehala jakinarazi beharko da eta, nolahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

i) Dirulaguntza emateko garaian, kontuan hartutako edozein gorabehera objektibo zein subjektibo aldatu dela jakinaraztea SPRIri.

Jakin eta berehala jakinarazi beharko da eta, nolahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

j) Onartzeko ebazpena eman aurretik eta ordaintzeko unean, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak zein dirulaguntzen itzulketei lotutako betebeharrak egunean dituela ziurtatzea, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak ere, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak 2023ko otsailaren 13an onartutako Aginduan ezarritako moduan.

k) Erakundearen izaera juridikoak hala eskatuz gero, behar bezala ikustatutako kontabilitate-liburuak, diligentzia-erregistroak eta gainerako dokumentuak edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatu beharreko merkataritzako legediak eta sektoreko legediak ezartzen duten terminoetan, baita dirulaguntzen oinarri arautzaileek eskatzen dituzten kontabilitate-egoerak eta erregistroak ere, egiaztatzeke eta kontrolatzeko jarduketak behar bezala egin daitezkeela bermatzeko.

l) Jasotako funtsen aplikazioaren dokumentu justifikatzaileak gordetzea, dokumentu elektronikokoak barne, egiaztatzeke eta kontrolatzeko jarduketak egin ahal izateko.

m) Hedapen-neurri hauek ezartzea dirulaguntza jasoko duen programaren, jardueraren, inbertsioaren edo jarduketaren izaera publikoari publizitate egokia eman ahal izateko, DEALen arabera:

– Jendaurrean zabaltzeko prestatzen diren dokumentuetan, karteletan, propagandan eta argitalpenetan, SPRIren logotipoa eta esaldi hau jaso beharko dira: «SPRIk diruz lagundua», esteka honetan eskuragarri dagoen formatuaren arabera: <https://www.spri.eus/es/logo/>

– Diruz lagundutako jarduerarekin lotutako ekintzen argitalpenean, iragarkietan eta publizitatean bi hizkuntza ofizialak erabiltzea.

n) Garatutako jardueraren edo jarduketaren gaineko diruz lagundutako kostuaren soberakina edo jasotako funtsak itzultzea, DEALen 36. artikuluan jasota dauden kasuetan.

ñ) Hizkerak eta irudiek ikuspegi interseksionala errespetatzea eta, batez ere, sexu- eta genero-ikuspegia kontuan hartzea, dirulaguntza jasoko duen jarduerak edo proiektuak eskatzen dituen dokumentu eta material guztietan.

o) Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea eta, batez ere, euskara erabiltzea diruz lagundutako jarduketarekin lotutako argitalpenetan, iragarkietan eta publizitatean.

p) DEALen 30.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, dirulaguntza jasotzen duena enpresa bat baldin bada, operazio komertzialetan egindako gastu hautagarriak aplikagarria den sektoreko araudian aurreikusitako ordainketa-epeetan ordaindu beharko dira, edo, hala badagokio, Merkataritzako-operazioetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako epeetan.

q) Onuraduna DEALen 48.1 artikuluan aurreikusita dauden egoeretan baldin badago, deslokaziorik ez egitea.

16. artikulua.– Dirulaguntzak aldatzea eta epeak luzatzea.

1.– Aurreikusita dago dirulaguntza ematen duen organoak erabakitzea emandako dirulaguntza edo bere baldintzak aldatzea, ofizioz edo interesdunak eskatuta, gertatutako egoerari buruzko balorazioa egin ostean, baldintza hauek betetzen badira:

a) Alde baten instantziari erantzunez gero, onuradunak jakin bezain laster komunikatzea eta, nolana ere, jasotako funtsei emandako aplikazioaren justifikazioaren aurretik, DEALen 14.e) artikuluan jasotako betebeharra betez.

b) Zenbatekoa handitzea ez ekartzea.

c) Egindako jarduera edo jokabidea edo egingo dena oinarri arautzaileen xedearen barruan egotea.

d) Aldaketa justifikatzen duten baldintzak onuradunaren borondatearen arabekoak ez izatea.

e) Aldaketa sustatu duten elementu eta baldintza berriak hasieran eman izan balira, dirulaguntza ukatzeko modukoak ez izatea eta aldaketa ez izatea hasieran onartutako proiektua erabat aldatzeko bezain handiak.

f) Hirugarrenen eskubideak ez urratzea.

2.– Onuradunak emandako dirulaguntza osoa edo partziala jaso badu, eta aldaketarekin zenbatekoa txikitzen bada, DEALen 40. artikuluan aurreikusitakoa jarraituko da.

3.– Halaber, programaren kudeatzaileak jarduerak gauzatzeko luzapen bat eman dezake, baldin eta erakunde eskatzaileek hala eskatu eta behar bezala justifikatzen badute; luzapen horren ondorioz, gehienez, beste 12 hilabetez atzeratu ahal izango da proiektuak gauzatzeko epea (12 hilabetekoa da epe hori).

17. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Ikusiko balitz erakunde onuradunak ez duela bete oinarri hauetan, aplikatzekoak diren gainerako arauetan eta laguntzen ebazpenean ezarritako baldintzetakoren bat, emandako laguntza eskuratzeko eskubidea galduko du eta SPRIri itzuli beharko dizkio ordura arte kobratu dituen laguntzen diru kopuruak gehi dirulaguntzen arloko legezko berandutze-interes aplikagarriak, eta behar balitz, legezko jarduketak abiaraziko dira diru kopuru horiek itzul ditzan. Era berean, aholkularitza enpresak hutsegiteren bat egin badu, programa honi atxikitako beste proiektu batzuetan parte hartzea debeka dakioko.

2.– Edonola ere, artikulua honetan aurrez ikusitako eraginetarako ez-betetzea izango da honako hau:

a) Laguntza-eskaeran eta dokumentazio osagarrian jasotako ekintzak aldatzea SPRIren baimenik gabe. Halaber, ez-betetzea izango da SPRIri ez jakinaraztea proiektuaren exekuzioan gertatutako aldaketak, baldin eta aldatu egiten badituzte laguntza emateko aztertu ziren baldintzak. Posible da aldaketak baimentzea, betiere erakunde onuradunak baimena eskatu badio SPRIri, eta justifikatu baditu aldaketa horiek, ahal dela, proiektuan aplikatu baino lehen, eta betiere, Programa honek lagundutako jardueren eta lortu nahi dituen helburuen izaera aldatzen ez badute.

b) Gastu hautagarriak epe barruan ez justifikatzea edo Programa honetan eta laguntza emateko ebazpenean jasotako eskakizunak ez-betetzea.

c) Diruz lagundutako proiektua betetzeko epeak gainditzea, aldatzeko baimena edo luzapena eman ez bada.

d) Laguntza eskuratzea Programa honetan ezarritako baldintza eta eskakizunak edo laguntza emateak berekin zekartzan baldintzak bete gabe.

e) Programan edo laguntza emateko ebazpenean aurreikusitako kontrol neurriak ez onartzea edo horien garapena oztopatzea.

f) Proiektua beste zerbaitera desbideratzea edo laguntzak emateko ebazpenean ezarritako beste edozein betebeharrak ez betetzea.

g) DEALen aurrez ikusitako kausak.

3.– SPRIri dagokio ez-betetzea egiaztatzeko espedientea hasi, izapidetu eta ebaztea.

4.– Ez badira betetzen deialdi honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan jasotako betekizunak (DEALeko 51. artikulua araberaren arabera, enpresa-deslokalizazioaren aitortzea barne) edo, hala badagokio, dirulaguntza emateko ebazpenean ezartzen direnak, dirulaguntza ezeztatu egingo da ez-betetze espedientea ireki ondoren eta SPRIri dirulaguntza edo berandutze-interesak itzuli beharko zaizkio. Itzulketa horiek Zuzenbide Publikoaren diru-sarrerak izango dira, DEALen ezarritakoaren arabera; edonola ere, dagozkion lege-ekintzak eta zigorrak jaso ditzake. SPRIren Zuzendaritza Nagusiari dagokio dirulaguntza ezeztatzea –eta, hala badagokio, partzialki edo guztiz itzularazteko– espedienteak abiarazi eta ebaztea.

5.– Ezarritako baldintzak partzialki betetzen badira, eta betiere, onuradunaren jarduketak konpromisoak argi eta garbi asebetetzen dituela egiaztatzen bada, dirulaguntza partzialki ordainduko da edo, hala badagokio, partzialki itzuliko da, eta kalkulatzekoan kontuan hartuko da egindako jardueraren proportzioa, guztizkoaren gainean. Nolanahi ere, onuradunak kobratzeko eskubidea duen kopuru partzialaren zenbatekoa bat etorriko da emandako dirulaguntzaren behar bezala justifikatutako zenbatekoarekin, justifikazioa egiaztatu eta erakunde emaileak onartu ondoren.

6.– Halaber, gainfinantzazioa badago ordainketaren ostean beste laguntza batzuk jaso izanagatik, programak helburu duen jardueraren kostua gainditzeko duen laguntza zatia itzuli beharko da, 9. artikuluan araututakoari jarraiki. Kasu horretan, itzuli beharreko zenbatekoa zehaztuko da gertaera hori adierazteko eta itzulera erabakitzeke emango den ebazpenean.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Araudi aplikagarria.

Programa honi araudi hau aplikatuko zaio:

1.– Dirulaguntzen Erregimena Arautzen duen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legea.

2.– Abenduaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta, aplikagarria denean, abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

3.– Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura emandako dirulaguntzen berme eta ordainketen araubide orokorra, eta zeinetan finkatzen diren berorren kudeaketan parte hartzen duten erakunde kolaboratzaileen baldintzak, erregimena eta betebeharrak.

4.– Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko EB 2023/2831 Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (DBLO-EDB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean (DBEO) eta datu pertsonalak babesteko gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoarekin bat etorriz, jakinarazten da emandako datuak SPRIk tratatuko dituela eta haren Tratamendu Jardueren Erregistroan sartuko direla.

Tratamendu horren helburua, deialdiaren interes publikoan eta parte hartzeko eskabidean oinarritua, eskatutako laguntzaren espedientea kudeatzea da. Datu pertsonalak tratatzeko oinarri juridikoa da SPRIk duen interes publikoa, SPRI Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia sortzeko estatutuetan ezarritako helburuak betetzeko.

Informazio hori gaian eskumena duen Administrazio Publikoari eta SPRI Taldeko enpresei laga ahal izango zaie.

Laguntza emateko espedientea izapidetzen den bitartean eta legez eska daitekeen epean gordeko dira datuak, legezko betebeharrak bete ahal izateko.

Interesdun guztiek eskubidea izango dute datuak zuzentzeko edo ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasunari aurka egiteko edo tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabaki baten xede ez izateko, bai eta datuak babesteko araudi aplikagarrian aurreikusitako beste edozein eskubide ere, eskubide horiek aplikagarriak direnean, honako helbide elektronikoa honetara idatziz bidalita (lopdp@spri.eus). Era berean, interesdunak Datuak Babesteko gure ordezkariarekin harremanetan jarri ahal izango dira, idatzizko komunikazioaren bidez, helbide elektronikoa honetan: dpdp@spri.eus

Era berean, interesdun orok du edozein erreklamazio aurkezteko eskubidea dagokion kontrol-agintaritzan, eta SPRIren kasuan, Datuak Babesteko Euskal Autoritatea izango da: www.avpd.eus

SPRIIn, Datu Pertsonalen Babeserako esparruan egiten duenaren inguruko informazio gehigarriaren eta xehakatuaren berri izateko, jo <https://agenda.spri.eus/lege-oharra/pribatutasun/web-orrialdeko-pribatutasun-politikara>.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

SPRIk oinarri hauei buruz hartzen dituen erabaki guztiak administratiboak dira eta, beraz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da jurisdikzio eskuduna.

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA

Onuradunek programa honen bitartez onartutako dirulaguntzaren jatorriaren publizitate egokia eman beharko dute, 16. artikuluan zehaztutako baldintzetan.

ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDU NORMALIZATUAREN EDUKIA

[Izen-abizenak] jaunak/andreak, [...] zenbakidun NANA indarrean duenak, [eskatzailearen izena] ordezkatzeko du, [...] IFZ zenbakia duena eta egoitza soziala [helbidea] helbidean duena, eta:

HONAKO ADIERAZTEN DU HAREN ERANTZUKIZUNPEAN:

I.– Programa honen xede den laguntza jasotzeko indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituela; zehazki, honakoak:

(i) Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera-zentro bat duela. Hain zuzen ere, aurkeztutako proiektuak zentro horretan izango du inpaktua eta bertan egingo da jarduera hautagarria.

(ii) Alta emanda dagoela Euskadiko Ekonomia Jardueren Gaineko Zergan.

(iii) Azken hiru urteetan, de minimis laguntza gisa 300.000 euro baino gehiago ez dituela jaso. Hori dela eta, eskaera honen apartatuan, alderdi hauei buruzko informazio-zerrenda aurkeztu beharko da:

a) Azken hiru urtetan jasotako de minimis laguntzak, bertan adierazi beharko da laguntza hori noiz eman zen, zer erakundek eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

b) Proiektu hori bera gauzatzeko, beste erakunde publiko zein pribatu batzuek eskatutako eta emandako dirulaguntzak, bertan adieraziz laguntza hori noiz eskatu zen, eta, hala badagokio, zein organismok eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

(iv) Eskaera honi dagokion apartatuan, enpresaren tamaina zehazteko informazioa gehitu duela.

(v) Enpresa ez deslokalizatzeko konpromisoa hartzen duela, DEALen 49. artikuluan adierazitako baldintzetan.

(vi) Gainfinantzaletarik ez egiteko konpromisoa hartzen duela, DEALen 9.4.h) artikuluan adierazitako baldintzetan.

(vii) Ez dagoela atxikita Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareari (ZTBES) edo antzeko izaera duten I+G sareei.

(viii) Ez izatea sektore publikoren batekoak diren edo sektore publikoaren parte diren erakundeak, aplikagarriak diren sailkapen instituzionalaren araudien arabera.

(ix) Ez dagoela DEALen 13. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean; hau da:

a) Epai irmo baten bidez dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearen zigorra jaso izana; edo prebarikazioarekin, funtzionario-eroskeriarekin, ondasun publikoak bidegabe erabiltzearekin, influentzia-trafikoarekin, iruzurrekin eta legearen aurkako ordainarazpenekin lotutako delituengatik edo delitu urbanistikoengatik zigorra jaso izana.

b) Borondatezko konkurtso-aitorpena eskatu izana, prozeduraren batean kaudimengabetzat aitortu izana, konkurtsoan aitortuta egotea (hitzarmen bat eragingarri bihurtu denean izan ezik), esku-hartze judizial baten mende egotea edo 2003ko uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legeak xedatutakoaren arabera ezgaituta egotea, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako ezgaitze-aldia amaitu gabe egonda.

- c) Kausaren batean errudun deklaratu izateagatik, Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izana.
- d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateetako administratzaileak edo beste pertsona fisiko batzuen legezko ordezkariak direnak honako lege hauek jasotako kasuren batean sartuta egotea bateraezintasuneko erregimenari dagokionez: Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea, eta Kargudun Publikoen Interes Gatazkak eta Jokabide Kodea Arautzen dituen 2014ko ekainaren 26ko 1/2014 Legea, edo Hauteskunde Erregimen Orokorreko 1985eko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan xedatutako hautetsia izatea, gai horiek arautzen dituen araudi autonomikoan edo lege horretan ezarritako baldintzen arabera.
- e) Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez izatea, araudiak zehazten duen moduan.
- f) Zerga-egoitza izatea erregelamenduz zerga-paradisu gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean.
- g) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrarekin lotutako ordainketak egunean ez izatea, araudiak zehazten dituen baldintzetan.
- h) Epai irmo baten bidez, zigor gisa, dirulaguntzak jasotzeko aukera galdu izana, lege honen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera. Zehatzago esanda, dirulaguntzen onuradun edo erakunde kolaboratzaile izaera ezin izango dute eduki sexu-arrazoiarekin lotutako jarduera baztertzailerik egin badute edo sexu-arrazoiengatik bazterkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudia ez betetzeagatik zigor administratiboa edo penala jaso badute, zigor horretan ezarritako aldiaren zehar. Honako enpresa hauek ere ezingo dute jaso laguntzarik edo dirulaguntzarik: Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat izan behar dutenek baina ez dutenek; eta 50 langile baino gehiago izanik, sexu-jazarpena do sexu-arrazoiengatik jazarpenera prebenitzeko eta hari aurre egiteko neurriak ezarri izana ziurtatzen ez duten enpresek, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko Estatuko legediak ezarritako baldintzetan.
- i) Pertsona fisikoa edo juridikoa, pribatua edo publikoa, Ekonomia zirkularerako kutsatutako lurzoruei eta hondakinei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste larri edo oso larriengatik administrazio-bidean ebazpen irmo bidez zehatua egotea, dagozkion neurri zuzentzaileak abian jarri eta isuna ordaindu arte.
- j) Desgaitasuna duten pertsonen mesedetan lanpostuak erreserbatzeko legez ezarritako kuota ez bete izana, hori bete ahal izateko neurri alternatiboak abian jarri direla frogatu gabe.
- (x) Europako Segurtasun Estrategian sartzen ez den erabilera militarreko armamentua edo teknologia ez duela ekoizten, merkaturatzen eta finantzatzen.
- (xi) Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpokoa dela edo barne-merkatuarekin bateraezina dela erabaki ondoren, laguntzak errekonfiguratzeko agindu baten mende ez egotea.
- (xii) Ez duela LGBTIfobiarik egin, bultzatu edo sustatzen, bihurketa-terapiak sustatu edo egitea barne, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eragingarriko eta LGBTI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen arabera.

II.– Eskaera honetako datu guztiak eta aurkeztutako dokumentazio guztian jasotakoak egiazkoak eta osoak dira. Horrekin lotuta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 28.7 artikulua xedatutakoaren arabera, dago-kion erantzukizuna hartuko du bere gain.

III.– Aurreko I. apartatuan egindako adierazpena betetzen dela ziurtatzen duen dokumentazioa duela eta Administrazioaren esku jarriko duela hark eskatutakoan; eta aurrez aipatutako betebeharrak betetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen duela, haren eskubidearen aitortzari edo egikaritzeari dagokion denbora-tartean zehar.

IV.– Badakiela Adierazpen honi laguntzen dion edo Adierazpenaren barruan agertzen den datu, adierazpen edo dokumenturen bat guztiz zuena ez bada, faltsua bada edo hutsak baditu, edo hura Administrazio eskudunaren aurrean aurkezten ez badu, ezingo duela eraginpeko eskubidea edo jarduera gauzatu, gertakari horien berri izaten den unetik bertatik; gainera, dagozkion erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak ezarriko zaizkio, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluko 4. apartatuan ezarritakoaren arabera.

[] Goian jasotako adierazpenen edukia onartzea.